

Margarita, Nafarruako Erregiñan

Ipuiñ batzuk

(Eibar-ko euskeran)

Erdi-Aroko lan mistikuak, munduko literaturan, istoriaren taupadak diran epikuak alde batera lagata, erri-gizonen disdirak jatorriz ditzuelarik, les fabliaux eta erri ipuiñak, adarra jotako senarrak eta andra arin txamarrekin batera, eskribau, ministro ta juez, ta batez be fralle giza-juak euren ditzuela burlarik larrixenak, Fray Gerundio de Campazas tartian dala, Jesus-en Konpañiako Aita Isla, XVIII bendiaren barruan.

Irakorlia jakiñerazten dogu, ipuiñ onen tartian, ez Nafarruako erregiñaren estenkadatsuenak —ze, beste alde batetik, gutxi-gora-bera, agoz, euskaldun diran errietan sus-traituta darez— gaurko denporak kontuan izan da, ez deitzen gaizko eritxi oin literatura ejerzio bat besterik eitzen ez daben onegaitzik.

AURRETIKO AGIRIXA

Ara emen, alde batera aiñda irurogei t' amabitatik, ixa dozenaren bat ipuiñ, Margarita, Nafarruako erregiñak, oiñ dala seireun urte inguru eskribidu eban liburu batetik euskerara atarata.

Erregiñ au Frantziako Franzisko Lelenan arrebía, eta Nafarruako Enrrike, Frantzian laugarrena izan zanaren amandria. Eta orduango erregien arteko zerikusi aundiko autuetan, aurrenentako zeregiñ eten bakua erabili ebana, andrakume jakintsu burugiñ au.

Eta kristau garbixa, eliztarra ta arimako arduretan begiratu aundikua izanarren, bere denporakua zan; eta bere denporakuak bere

ipuñetan gorririk agertzen diran oitturak, zuzentzia eskatzen ebela askok, eta sarri artarako asmuñ agirixan jarrita ziur liburu artan.

Amaika aletako onek, ez dira ausarkixenak; bañia ausarkixena be, ez da erakus-gei on bat besterik pekatari garanon osasunerako. Eta erakus-gei au agertzen da obeto, iturririxan irakortzera ezkerro, liburuko ipuinlari ta entzunlarixak alkarregaz erabiltzen daben jar-dunian, kontu bakotxan ondoren.

IXILLEKO MAITIAN IPUÑA

Gaztela-ko errege ta erregiñan jauregixan zan (euren izenak ixillian gordeko ditturaz). Zaldun bat, Elisor deitzen zana, oso jatorra eta beste-ez-lakua Españietan zintzotasun eta adore onian. Asko zirau bete-izate aiñ dontsuari mira eiñda, bañia ala be, aiñ jasua eta begi-onekua izanda, ez jakolako ezagutzen ez aiskide eta ez gurakorik andrakumian artian, ainbeste eder eta maittagarri ziralarik inguruan.

Erregiña, biña zala bañia ez maitetasunan garrak erre ezindakua, ikusirik zaldun jator aren oztasuna bere etxeko emakume guztiendako, itandu zetsan beifi, nola izan zeikian benetakua agiri gura eban oztu sun aura.

Eta zaldunak erantzun zetsan, esanaz:

—Ikusiko bazenduke nere biotzaren barrukaldia eta an darabira na jabe, ez leskirazu ezer galdetu biarrrik.

Erregiñak jakin-nai erantzun orrek garbi zer esan gura eban, aiñ zirrikau eban eze, azkenian atara zetsan zaldunorri, nola maitetsu zan, ixillian, kristau arteko emakume zintzo eta ederren bategana.

Au jakiñaz, erregiñak, aurrerago jua gurarik eiñ zittuan alegin, guztiak izentatzeko zaldunorri emakumezko aren izena, bañia danau izan zan alperrik; zalduna zanetik iltzia naixago ebana bere biotze-ko jaban izena agertzia baño. Bañia, gero erregiña asarre ikusirik, ez bildur aundi barik, esan biar izan zetsan onela:

—Ez dot nik naikua odol ixilleko izen aura agotik atartzeko; bañia eizara zoyazen okasiño urrenian, betiko moduan laguntzaki, banozu, *ikusí eraiño detsut* zein dan nere ixilleko maittia; eta esang, destazu gero, ia ez dan munduan emakumerik ederrena.

Erantzun au izan zan naikua erregiñak eizara juatia al zan guztia aurreratzeko. Elisor-ek, bere aldetik, gertau zittuan bris-bris zaldixa eta onen apaiñ guztiak, eta ala be, bere galtzairuzko petua, eta zorioneko egunian, juan zan soñian au espillua letz ebalá, baña zapi eder bategaz estalduta, erregiñan laguntzan, eizara bidian.

Juanaz, tokira eldu ziranian, alkarri ezer esan biar barik, bixak alegindu ziran alkarregaz bakarrian agertzeko. Eta bakartasun artan, erregiñak zaldittik jatxitzeko eskuak emon zetsazentian, zaldun jatorrak agertu eban bris-brisko petua, esanaz señoriari beittu zeilla espillu artan, bigunki lurrian jartzen eban artian, nai-ta-naiez eifi biar izan ebana ardura aundi barik ezeren kontuan jausi gabe.

Eizan eguna eifida, itxuli ziran eizariok beste barik jauregira, eta afalostian, erregiñak deittu zetsan zaldunari alde batera, iñok ez aitzeko moduan, guzurti aundi bat zala esateko, aindutakua bete ezetzanetik. Zaldunak onetan aitzen emon gura izan zetsan, zelan *garbi ikusi erain zetsan* munduan geixen maite eban emakumia eizako denporan, baña erregiñak, ez-jakiñeko irauntzen eban, ezer aittuko ez baleu letz.

—Ez al dozu ezer ikusi nere soñeko ispilluan, an beitzeko aindu detsuranian? —tematu biar izan zetsan zaldunak.

—Nere burua baño besterik ez —erregiñan erantzuna, oindiok be konturatuko ez balitza bezela.

—Or ba!, nere erregiñ eta señoria, aiñ ziur nun bete dodan aindutakua, *ikusi eraiñas* antxe, munduan geixen maitte doran emakumia, utzirik bere eskuetan ill edo bizi! Bakarrik eskatzen detsut —jarrai eban esanaz zaldunak— zazpi urtian ixillian gorde doten bezela barruko su au, aurrera be, al deirala, zerbitzalle apal, begixen aurrian erabilli nere maittian irudixa!

Erregiña, jakiñian biotzari ezin jakona aindu maitte edo ez maitte izatia bere buruan probauta eukanetik, euren artian izan ziran errazoi askon ondoren, bixen penitenziaz, aindu zetsan urrengo egunian, beste luzekizun barik, iñok ez-jakiñeko tokira aldeko ebalá, beste zazpi urtian ixilleko a garra ixillian gorde zeixon, bere aurrera agertu barik.

Zaldunak, au entzunaz, esan zetsan:

—Zazpi urtian bizi izan banaiz ezeren itxaropen barik, nola ez bizi beste zazpi urtian espero doran sarixagaitik? Baña zer siñale tratu onen egigarri bixon artian?

Erregiñak atara eban bere eraztuna eta esan zetsan zaldunari:

—Erdibittizu arrako au gorde deigun erdi-bana.

Artu eban bere erdixa zaldunak eta ixa ill biarrian, agur eifida bere erregiñari, aldendu zan toki bakarti ezkutu batera, nun iñok ez eban geixago jakiñ beranik.

Zazpi urtera, erregiña mezatara zoyan baten, beste eskeko asko bezela, bizardun gizon santu batek jarri zetsan eskuetan bere eskabidia. Elizan, meza erdirutz, eregi eban bizardunana, eta barruan agertu jakon bere eraztunan alde-erdixa.

Mezian azkena itxaiñ gabe, aindu zittuan bere zerbitzalliak billau zeixen eskatzalle aura, baña alperrikua izan zan. Zaldi gañian urrindu zala ez jakin nora, ori zan jakin al izan eben guztia, auzuan.

Eskabidiak zifnuana, erregiñak irakorri ebanian, nola beti maitetsu, jarri eban bere maitasuna goragoko toki baten, eta ondo artu zeixola bere zerura arteko agurra.

Elizatik urtenda, ogeratu zan erregiña biotzeko nai-ez aundixakin. Eta ibillera danak, mendi, baso eta zugazti urriñerañoko alde guztietan, aintxiñako zaldun maittian billa, alperrikuak izan ziran.

Eta zeruan, Jaungoikuak deittu zetsanian, aurkittu biar izan eban, eta antxe maitte izan ziran ezkutau biar gabe.

Senar, bat bere kalterako alegiñetan

Izan zan beifi, Alais-ko kondian lurretan, gizon bat, Bernet deritzen zana, zeñek artu eban emazte oso zintzua eta ondo begiratua auzo guztiengandik.

Senarrak, zintzotasun aura emaztiagandik beretzat ondo gorde gura izanarren, bere aldetik emaztiantzat zor bardiña ez baleskio letz ebillen, aztorauta neskamian ondoren, naiz de onek ez izan beste bentajarik, jaunarentzat, barrixa izatia baño.

Senar kaskill onek, auzuan lagun eban bere antzerako beste zaskar bat, Sandras bere izena, txanbolin-jola ta giza-jostun eitten ebana bizi-moduko ofiziuetan. Ain zan lagun bixen artian kidetasun estua, emaztia izan ezik, beste dana alkarrentzat ebela, ezer ez da ixillekorik euren artian.

Eta ala, jakiñian ipiñi eban Bernat-orrek Sandras lagunori, neskamian kontura erebixan berotasunan autuakin. Lagunak, ez bakarrik ondo eritxi zetsan zaskarkerixa oni, ez bada eze, baitta laguntzia aindu zetsan aurrera eruateko asmu negargarrixa, parte izateko asmu bestian irabazi argalian.

Neskame koittaua, bakerik ez da, alde guztietatik zirri ebala bere burua ikusi ebanian; etxeko-andriari eskatu zetsan baimena gurasuetara itxulitzeko, angu jazarri aretan bizi ezin zalako.

Etxeko-andriak, aurretik zegozeren aztarrana baebala, iturburutik gauzia ziur jakiniaz, poztu zan bere biziko onduen, autu onetan senarrari ziri on bat sartzeko aukeria ikusirik. Eta esan zetsan neskameari:

—Aurrerakuan ondo artizu nere gizon kaskillori; eta aiskidezko berba legunekin, eldu zaittez alkar-aittu ixillekua amaitzera, ordua emonaz gabaz alboko gelan alkartzeko. Baña, aittirazu ondo, tratu onen gora-bera guztiak neri aurriz kontu emotekotan, beste danen ixillean.

Neskamiak eñ eban guztia etxeko-andriak aindu zetsan bezela, eta añ alai arkittu zan gizon zoruori, sortu jakon aukeriakin, ez eban denporarik galdu bere zorionan poza jakin eraitzeko lagun zaskarrari.

Onek, barri ori entzunaz, aittatu zetsan berari be etorkion partia aukera on orretan, gauza guztietan oittutzen eben bezela.

Eta, neskamiagaz esandako orduan eta tokixan, bertan zan illunakin juan zan gizonori begitxuan, aregaz ogeratzeko asmuan. Baña emaztia, neskamiagaz alkar aittuta, aurrez jarri zan onen lekuan, eta artu eban senar itxua neskaxa izutu bat balitza letz lelengo auzixan, ain zuzen eta egoki, gizonori uste jatsun zeruan; baña ez gitxiago emaztiak eñ zetsan engañuakin.

Bere al guztiak an utzita gero, urten eban gizonorrek lagunari aitzen emotera, izan eban zorion dana, aindurik ariñ ibilli zeilla, beste ainbesteko zoriona izan deiñ.

Ez eban izan bi-bidar esan biarrik. Juan zan lagunori esandako lekura, neskamiangana. Zefiek pentsauko eban lena ez zala, berriz gogotuta senar zorua, naiz da emakumia ikaratu ekarri zituan indar barrixegaz. Egun-sentirutz jaiki zan indartsuori eta agur eñiaz, jolasetan, kendu zetsan atzaparreko elaztuna orcimentzat. Gordebiarreko gauza santua izanarren, emaztian eskuan elaztuna, txantxetako neskame au zan senarrari lagatzen zetsalakuan apañ lotugarrixori, sartu zetsan engañua, gero, senaille aura zala bittarte bere engañua probatzeko asmuan.

Goizian belu, naikua orduzko lo eñda gero lagun urde bixak tabernan bat eñ ebenian, gabeko barri lizunegaz jardutzeko, senarrak ikusi eban lagun eskuetan bere emaztian elaztuna, eta kezka beteta, batera-batera, juan zan asarre emaztiagana, kontuak artzera, esanaz:

—Zer eñ dozu nere elaztunagaz? Nun dozu nere pitxi lotugarrixa?

Eta emaztiak, bere aldetik, ez artzeko gitxiagokin:

—Eta zuk, norgaz uste dozu izan zarala bart, bi aldizko goguekin?

Eta senarra, beste barik, jausi zan kontuan zer zori-gaiztoko biar-eza batu zetsan bere buruari, emaztian kulpa barik eta bere zintotasunan kalterik gabe, eta bere buruari etsipena biarrian ebillen, bera bakarrik zala kulpagarri. Sosegau zan alakoren baten, emaztian zuzentasunak kalterik ez ebanetik; baña, gauzia jakin zanetik, ez zetsen parkatu errixan “akerran” izena.

TORIBIO ECHEBARRIA.

Caracas, 1961-eko abenduan.

